

B

BARREN

Trinitri triki trauki, danborraren hotsa











Klinikan %15eko deskontua implante tratamenduetan

* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte balio du.

 Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

-  inplanteak eta hortz fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  “invisaling” ortodontzi ikusezina
-  haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com

Mundua ulertzeko manierak

Mobuto Malikoa da, baina Bilbon bizi da. Gaztelaraz egiten du eta orain euskara ikasi nahi du. Hilabete batzuk daramatza euskaltegian eta zer edo zer esaten du. Esaterako, "Euskal Herrian bizi naiz". Berak badaki nora etorri den, baina ez daki bere ametsak zer egingo duten. Euskarak besapeetan kili-kili eragiten diola dirudi, ahoa zabaldu orduko barrez hasten baita. Batzuetan, Mobutok txorien kantuekin parekatzen du euskara, bereziki irakasleak adarra jotzean: "Mobuto, belarri horrek zer dio? Belaggi honek...", eta belarri-gingila ukitzen du adierazteko txoriak arrautza erruteko denbora falta duela. Hala ere, badaude gauza asko ulertzen ez dituenak: euskaldun askok euskaraz ez egitea, ez ikastea. Horrelako gauzak tabernan esaten dizkio irakasleari, ahopean, Mobutori jendearekin haserretzea ez baitzaio gustatzen. Lehengoan, ariketa bana egin zuten eskolan, sentimenduak askatzeko aukera ematen duenetakoa eta nork bere etxea deskribatu behar izan zuen. Orduan, Mobutoren bihotza ilunpetan gelditu zen eta Maliko lastozko etxea imajinatu zuen, kriselua piztuta. Halarik ere, Mobutok aurrera egin zuen, Mobutok oso ondo baitaki errealitatearen gogorrari aurre egiten, eta *La Guía Inmobiliaria* egunkaria hartu, eta Bilboko pisu dotorea aukeratu zuen ondokoari kontatzeko. "Etxeak lau logela ditu". Berak ez zuen esan, baina logeletan Maliko andrea eta seme-alabak zeuden. "Etxeak egongela handia du". Berak ez

zuen esan, baina bertan bidegabekeriez arituko zen. "Etxeak terraza du". Berak ez zuen esan, baina terrazatik *paterak* ikusiko zituen. Iragarkiaren oinak prezioa zuen: 811.336 euro (135 milioi). Mobutok oraindik ez ditu horrelako zenbaki potoloak ikasi, Mobutorentzat mila eurotik gora neurritz gainerakoa baita. Mobutok hizkuntza komunikatzeko nahi du, DVDak saltzean zenbaki txikiak erabiltzeko.

Juan Luis Mugertza



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Mobutok hizkuntza komunikatzeko nahi du,
DVDak saltzean zenbaki txikiak erabiltzeko"**

BIDALI ZURE GALDERA

ALKATEARI!

Legealdiko bi urteek eman dutena eta aurrera begirako asmoak azalduko ditu Alfredo Etxeberriak.

Galderak bidaltzeko azken eguna, ekainak 8

elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

eneko etxebarrieta



Eneko Etxebarrieta gasteiztarra da, eta munduari bira eman dio bizikletaz bi aldiz. Lehenengo bider bakarrik egin zuen, eta, bigarreanean, Miyuki emaztea eduki zuen bidelagun. Bidaian bizi izandako esperientzia kontatzera etorriko da eguaztenean, ekainaren 10ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelara 19:00etatik aurrera.

Edurne Burgaña

“Bizikletaz bidaiatzeko ez da diru askorik behar”



Munduari bira eman zenion bizikletaz zeuk bakarrik. Zelan hasi zenuen bidaia hura?

Gasteizatarra naiz eta asmoa hemen-dik Istanbuleraino joatea zen. Horretarako lau hilabete beharko nuela uste nuen. Ez neukan esperientziarik eta oso zaila izango zela uste nuen: hasieran, zaila izan zen, baina gero, bidaiari sartzen joan nintzen, eta, Istanbulera ailegatu nintzenean, gustura nengoen eta bidaia jarraitzea erabaki nuen. Asiatik Turkia, Iran, Pakistan, India eta beste hainbat herrialde egin eta gero, Australiara joan, eta handik Hego Amerikara pasa nintzen. Eta han Miyuki ezagutu nuen, nire emaztea.

Brasilدارا da Miyuki.

Kuritiba hirikoa da Miyuki. Proiektzio bat ematera joan nintzen –dirua lortzeko denetarik egiten nuen bidaiari–. Miyuki gaztelania ikasten ari zen, eta ni bere eskolara joan nintzen proiektzioa ematera. Bukatu ostean hitz egiten hasi ginen. Bizikletaz ibiltzea gustatzen zitzaion, eta elkarrekin bizikletaz ibiltzeko geratu ginen. Astebete pasata elkarrekin

geunden, eta Miyukik, dena utzi eta nirekin bidaiatzea erabaki zuen.

Zergatik aukeratu zenuen bizikleta bidaiatzeko?

Gasteizen bizikletaz mugitzen naiz, eta nire hirian erabiltzen nuen ibilgailuan bidaiatzea pentsatu nuen. Atsegina izango zela pentsatu nuen.

Egunero-egunero bizileta hartu eta kilometro mordoia egitea gogorra da?

Hasieran bai, baina gorputza ohitu egiten da gero, eta gustura aritzen zara. Hala ere, batzuetan, hotza egiten duenean, edo bero gehiegi, gogorra izaten da. Baina kirola egitea ona da, eta gorputza ohitu egiten zaizu. Gainera, bizikletaz leku batera iristean, jendeak begi onez ikusten zaitu: ekologikoa da, ez duzu zaratarik egiten, eta jendeak hobeto ikusi eta onartzen zaitu.

Munduari lehenengo bira bakarrik eman zenion, eta bigarreana Miyukirekin.

Hasieran bakarrik egin nuen bidaia alderantziz egitea pentsatu genuen. Asmoa bidaia tandemean errepikatzea zen. Lehendabiziko bidaiari ez neukan inolako helbururik, baina,



bigarrean, aurrez lortutako esperientzia eta gure lanbideak aprobetxatzea zen helburua: Miyuki telekomunikazioetako ingeniaria da, eta ni irakaslea eta argazkilaria. Beraz, bidaia komunikatzeko erabiltzea pentsatu genuen.

Horrela sortu zenuten *Acercando el mundo* proiektua...

Proiektuaren helburua bidaia gure web orrian kontatzea zen, www.acercandoel-mundo.com helbidean, eta kultura eta komunikazio proiektua izatea. Alde batetik web atariaren bitartez jendeari mundua zelakoa den erakusten genion, eta beste alde batetik, proiektu soziala egin nahi genuen. Unicefekin hitz egin genuen, eta bidaian Unicefen hainbat proiektu bisitatu genituen.

Caracasera iritsi zineten bidaian.

Gasteiztik atera eta Lisboara joan ginen, han hegazkina hartu eta Ushuaiara joan ginen. Hego Amerikan Atlantikoko kostaldetik Ushuaiatik Caracasera igo ginen. Eta han Miyuki haurdun geratu eta etxera bueltatu ginen. Kosta egin zitzaigun erabakia hartzea: gustura geunden bidaian, baina haurrarentzat bidaia arriskutsua zela iruditzen

zitzaigun. Gure lehenengo semea da, eta ez geneukan esperientziarik; beraz, etxera bueltatu eta familiaren laguntza edukitzea onena izango zela pentsatu genuen. Urmeak sei hilabete ditu orain, baina, hazten denean, berriro ere bidaia jarraituko dugu.

Hainbeste urte etxetik kanpo egin eta gero, arraroa egiten zaizu orain Gasteizen egotea?

Ba pixka bat, bai. Baina beste alde batetik, haurra daukagu eta horrek denbora betetzen digu. Lehendabiziko bidaian lau urte egin genituen kanpoan, eta bigarrean hiru urte eta erdi; orain familiarekin gaude, eta arraroa egiten bazaigu ere, gustura gaude.

Zer behar da bizikletaz munduari bira emateko?

Dirua garrantzitsua da, baina, bizikletaz bidaiatzeko ez da asko behar. Inportanteena gogoa da. Gogorik ez badaukazu, utzi bidaia, sufritu egingo duzulako. Bizipen handiko bidaia da, eta prest egon behar duzu. Jendearekiko harremanak oso garrantzitsuak dira, eta, bizikletaz joatean, harreman estua edukitzen duzu. Hizkuntzei dagonioke, ingelesak asko laguntzen du, baina ez

da beharrezkoa: zeinuen bitartez ere komunikatzeko era badago.

Herrialde eta kultura asko ezagutu dituzue bidaian. Bakar bat aukeratzekotan, zein?

Zaila da bakarra aukeratzea, bakoitzak bere gauza onak eta txarrak dituelako; guztiak dira interesgarriak. Baina Japonian, adibidez, gustura sentitu nintzen, jende oso jatorra dago; baina, bestalde, estresatuta bizi dira. Azken bidaian ezagututako kultura interesgarrienak indigenak izan dira. Naturarekiko harreman oso ona daukate: ez dute pentsatzen dena moztu eta saltzarekin. Beste bizimodu bat daukate, lasaia eta ederra.

Munduari bira emateak zertan eragin ditu?

Ez da erraza azaltzea. Bizikletaz munduko bira ematea interesgarria da mundua zelakoa den ezagutzeko, eta bizikletaz egitean, erlazio berezi bat sortzen delako. Gauza mordoa ikusten dituzu. Bidaia honetan atera dudak konklusioa da gizakia ona dela oro har, baina badaudela batzuk, horretaz aprobetxatzen direnak dirua egiteko.

“Leku batera bizikletaz iristean, jendeak begi onez ikusten zaitu”



Brasilgo hondartza batean Miyuki tandem gidatzen, Eneko atzean duela




Aizkorri kaleko etxe berrietan horma pitzatuta dago aspalditik: Aizkorri kaleko 13. eta 15. portaletako bizilagunek Debabarreneko Mankomunitatearen kontrako kexa azaldu nahi dute. “Orain dela hamabost hilabete Mankomunitateko kamioi batek gure etxeko fatxadaren kontra jo zuen, eta horma pitzatuta dago ordutik. Behin eta berriz eskatu dugu konpontzeko, baina oraindik ez dute ezer egin. Konpontzeko ordua dela iruditzen zaigu”. ⇒



← **Eskola Kiroleko Txankakua taldeko jokalariek entrenatzaileak txalotu nahi dituzte:** “Mila esker Juanpe eta Miguel entrenatzaileei. Denboraldi oso ona egin dugu, eta Gipuzkoako finalurrekora iritsi gara! Mila esker”.



Eskubaloiko Aterpe taldeko jokalariek eskerrak eman nahi dizkiete Aterpe taberna-koei: “Aterpe tabernakoek bazkaria ordaindu digute, eta eskerrak eman nahi dizkiegu. Mila esker guztiagatik”.





V. URTEURRENA

MARI TRINI REY TOBAJAS

2004ko ekainaren 3an, 54 urte zituela hil zen.

“Orain dela 5 urte izar bat itzali zitzaigun, baina zure begi urdinen distira gure bihotzetan jarraitzen du. Maite zaitugu”.





I. URTEURRENA

MARIBEL GONZALEZ RELLOSO

2008ko ekainaren 3an, 52 urte zituela hil zen.

Eskerrik asko mezara joango zaretenoi.



HONA HEMEN TRINITATEAK



Zorionekoak bergararrak, aurreko asteburuan eguzki bikaina izan zuten eta. Mendekosteetan eguzkia egiten badu, Trinitateetan euria: hala dio tradizioak. Nahiz eta eguraldiaren iragarpena egokiena ez izan, etxean gelditzeko atzakiarik ez dago asteburu honetan. Egitarau osoa, 25. orrialdean.

Oier Narbaiza

Eguraldi euritsu zein eguzkitsua egin arren, plan zoragarria egiteko aukera beste behin ere eskainiko dute Trinitate Jaiek. Era guztietako planak egin daitezke, gaur arratsaldetik hasita: umeak eta gurasoak Kiribil barraskiloarekin ibiliko dira, 17:30etik aurrera; kalezaleak, geroxeago, Mauxitxa txarangarekin; nostalgikoak, berriz, Plaza handian bilduko dira gauean, Expresion Sonora taldearen kontzertuan.

Bihar, Trinitate bezperan, Elgoibarko baserriarrek kalea hartuko dute, eurak ekoiztutako produktuak saltzeko. Zortzi baserrik barazkiak eramango dituzte. 28 baserrik, berriz, abereak erakutsiko dituzte. Azoka 10:00etan hasi eta 17:00etan amaituko da.

Azoka girotzeko, idi-dema berezia antolatatu du Debemenek. Soarteren idi pareak

2.100 kiloko *Harri Beltza* mugitzeko ahalegina egingo du. Antzina ibaitik ustez atera zuten harri horrek oso forma bihurria dauka, eta, landu gabe dagoenez, idiek nekez mugitu dezakete. 50 urtean inor ez da auzartu *Harri Beltza*-rekin. Ikuskizuna 12:30ean hasiko da, Nafarroa plazan.

Euskal ezkontza

Danborradak euskal ezkontza irudikatuko du bihar gauerdian. Ezkongaiena lagun bik egingo dute, gurdi gainean. Iaz, ardoa izan zen danborradaren ardatza, eta orain dela urte bi, itsasoa.

Guztira, 250 lagunek parte hartuko dute danborradan; tartean, gastadore konpainia elgoibartarrak estreinakoz parte artuko du ikuskizunean. Gainera, pare bat bildots ere erreko dituztela iragarri dute. Kanoia ere kalejiran aterako dute,

baina aurtan ere danbatekorik egin gabe gelditu beharko du.

Hauteskundeak eta jai batera

Aurtan, behintzat, Trinitate Eguna ez da elgoibartar guztiontzako izango. Kontua da Europako Parlamentuko hauteskunde eguna izango dela, eta askok egun osoan hauteskunde-kolegioan egon beharko dutela. Tartean, behar bada, izango da bokaziozko parrandazalaren bat, gaupasa eginda, nork daki...

Udal txistulari Bandaren dianarekin hasiko da eguna, 9:00etan. Ordu berean, ehiza-txakurren lehiaketari ekingo diote, Mintxetan.

Artisauen azoka 10:30ean hasiko da. Besteak beste, egurrezko lanak, beirakoak, bitxiak, larrua, ehunak eta lutheria ikusi eta saldu ahal izango dira.

ABEREAK

- **Garate:** pirenaikak.
- **Arizti txiki:** pirenaikak.
- **Berdeskunde:** pirenaikak.
- **Basueta:** limusinak.
- **Ziarda:** limusinak.
- **Ziarda Txiki Goikoa:** Labeleko limusinak.
- **Agarre:** mestizoak.
- **Irunaxiki:** suizak.
- **Zulueta Behekoa:** blondak.
- **Makibar:** Betizuak.
- **Irunaso:** terreñak, ahuntz azpi-gorriak, pottokak, poniak, basurdea.
- **Akei:** Enkarterrietako astoak.
- **Egi:** Astoak, poniak.
- **Arostegi:** astoak, poniak.
- **Aldazelai:** behorrak.
- **Belaustegi:** zaldiak.
- **Juaristi Haundi:** moxalak.
- **Iriarte:** poniak.
- **Irunaberri:** pottokak.
- **Aozar:** oilaskoak.
- **Ertzil:** txerriak.
- **Armaitta Erdikoa:** txerriak.
- **Mausitxa:** ardi mutur-beltzak.
- **Sagarraga:** ardi mutur-gorriak.
- **Otxaurtia:** sasi-ardiak.
- **Iriarte:** *berrichon* ardiak, antzarrak, ahuntz nanoak.
- **Urruzuno:** ahuntzak.
- **Lekunberri:** idiak.

BASERRIKO PRODUKTUAK

- **Txillarre:** barazkiak.
- **Zabaleta:** barazkiak, ogia.
- **Eguen Txiki:** barazkiak.
- **Ballibar:** barazkiak.
- **Lekunberri:** barazkiak, gazta.
- **Mausitxa:** gazta.
- **Lizundia Txabola:** sagardoa, gazta, ogia, intxaaurrak.
- **Musillo:** gazta
- **Jesus Mari Iriondo:** ezta.
- **Aozar:** basatxerri produktuak.
- **Mintxeta:** gazta.

Aurten, 27 artisauk parte hartuko dute, tartean Elgoibarko bederatzik. Xabier Isasti elgoibartarra, esaterako, egurrezko lanekin joango da azokara. Isastiri betidanik gustatu zaio egurra eta aspaldi ekin zion lantzeari. Hainbat taila eta kutxa egiteko afizioa du. Aurtengoa bere lehen azoka izango da. “Krisia dela eta, orain denbora gehiago daukat, eta aprobetxatzea pentsatu nuen”, adierazi du. Azoka aukera polita izan daiteke bere lana eza-gutarazteko. Aurrerantzean gustatuko litzaioke azoketan jarraitzea.

Umeen danborrada

Domekako beste ekitaldi garrantzitsua umeen danborrada izango da. Egurdiko 12:00etan irtengo dira haurrak kalez kale Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako bandaren laguntzarekin. Aurten, gainera, berezia izango da umeen

danborrada, musika eskolak 25 urte egin dituelako. Urteurrenerako sortu berri duten logotipoa eta instrumentu batzuk karroza gainean izango dira. Zentruko arduradunek aurreratu dute 5 urteko umeak karrozan joango direla, 8 eta 9 urteko beste batzuekin batera.

Danborradaren aurrekaldean 6 urteko txikiak joango dira, inude eta artzain jantzita. Hori izango da umeen danborradako nobedadea aurten. Izan ere, ume horiek dantza bereziren bat egingo dute ibilbidean zehar. Betiko ibilbidea egingo du danborradak. Plaza Handitik Santa Ana aldera joko du karrozaren bila. Handik Madalaraino jaitziko da, eta handik Pedro Migel Urruzunora joko du, Plaza Handira itzuli aurretik. Ordu eta laurden inguru iraungo du.

Bistan da etxean gelditzeko aitzakiarik ez dagoela. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, aspertzeko aitzakiarik ez dago.



Jose Andres Arrizabalaga

Arizti Txiki baserrikoa

Elgoibarko baserritarrek euren lana erakutsiko dute bihar. Batzuek baserriko produktuak salduko dituzte. Beste batzuek abereak erakusten jarraituko dute. Jose Andresek pirenaika arrazako behiak eramango ditu.

Zer ganadu ekarriko duzu azokara?

Pirenaikak ditut. Nik hamabost buru eramango ditut: sei behi txahalekin, gero beste bi biga sekula txahalik egin gabekoak, eta idiskoa.

Zergatik parte hartzen duzu?

Urte bitik behin etortzen naiz, kaleko jendea erakusteko zer dagoen herrian eta zer lan egiten dugun, jendeak ikusi dezan eta konturatu dadin zer lan egiten dugun.

Zer iritzi duzu ganadu erakusketari buruz?

Gehiago balitz, hobeto, baina lekua ere ondo beteta gelditzen da. Nik uste dut ondo dagoela. Erakusgarria da: ganaduak, zaldiak, txerriak... denetik dago. Nik uste dut poliki dagoela. Jendea ohartu dadila hor gaudela.

Ganadu gehiago ikusiko duzu bihar, ezta?

Dudarik ere ez: beste puestoak ikusiko ditut.

Horrela besteak zertan dabilzan ere gertutik ikusiko duzu.

Elkar ezagutzen dugu hemen sektore honetan gaudenok, batzuk arraza batekin eta besteak beste batekin ibili arren. Baina ikustea gustatzen zait. Begientzako pozgarria da, batez ere, dena gainbehera dagoen honetan. Guretzako afizioa da, dirurik ez dagoelako.

Ganadua prestatu beharra dago feriara ekartzeko?

Ez daude ohituta jende artean, eta sokatik lotuta. Orduan, urtean zehar hezi egiten ditugu. Hala ere, azken momentuan erreazio txarren bat izan dezakete, nerbioa jarri edo. Horregatik ingurua hesituta jartzen da, jendea hurreratu ez dadin. Ganadua ez dago bere lekuan, mendian edo zelaian dago bere lekuan.



Madalako jai batzordeak 'festetan burua erabili' jaia antolatu du



Madalako jai batzordeak ere jaietan parte hartuko du, baina ez Madalan obrak direla eta. Kalean hainbat ekitaldi antolatzeaz gain, Gaztetxeko jaiarako gonbitea egin dute.

Madalako jai batzordeak egitaraua kaleratu du trinitateetarako. Zailtasunak aurreikusi zizuten, Madalako lanak direla eta. Horrenbestez, txosnarik ez jartzea erabaki du. Hala ere, kalean eta gaztetxean jardungo du ospakizunarekin. Elgoibarko baserri batzuetan egindako sargardoa dastatzeko aukera eskainiko du jai batzordeak, zapatu goizean. Horrekin batera mokadutxo egiteko aukera ere izango da. Arratsaldean, txikiteo-kalejira antolatu du. Gauean, *Festetan ere burua erabili* izeneko jaia izango da gaztetxean. Bertara sartzeko ezinbestekoa izango da buuruan zerbait eramatea: txapela, diadema, bisera, loreren bat... Afaltzeko, txitxarro errea izango da. 23:00ak aldera MunLet bikotearen kontzertua hasiko da. Gero, giroa berotuko dute DJ Txakok, DJ Doc Koyamantadok eta DJ Zigor Dzk.

ARTISAU AZOKA

- **Jaime Septien** (Donostia), beiragintza.
- **Adrian Kiteber** (Morillas, Araba), beiragintza.
- **Kiara** (Bidania), beiragintza.
- **Miren Monasterio** (Eibar), bitxiak.
- **Irati Agirreazaldeg** (Elgoibar), bitxiak.
- **Zaloe Lekue** (Bilbo), bitxiak.
- **Raquel Lamarque** (Viana, Nafarroa), bitxiak.
- **Barcina artisauak** (Arrasate), ezpelezko artisautza.
- **Lekutxu** (Gasteiz), egurrezko jostailuak.
- **Silvestre Moreira** (Irun), egurrezko lanak.
- **Xabier Isasti** (Elgoibar), egurrezko lanak.
- **Marga Garcia** (Morillas, Araba), ehunak.
- **Jose Membrillera** (Elgoibar), eskulanak.
- **Antxon Fresnedo** (Elgoibar), itsas-korapiloak.
- **Mari Carmen Elorza** (Elgoibar), kakorraz lanak.
- **Elexamendi tailerra** (Angiozar), larrugintza.
- **Eduarne Garate** (Bilbo), larrua.
- **Arturo Andrade** (Elgoibar), lutheria tailerra.
- **Jean Paul Avila** (Elgoibar), makramea eta harizko lanak.
- **Egur tailerra** (Elgoibar), margoak eta esmalteak.
- **Marivi Mendez** (Madril), oihalak eta osagarri margotuak.
- **Iñaki Agirrezabala** (Matxinbenta), otarregintza.
- **Mari Carmen Irazabal** (Munitibar, Bizkaia), pilotak.
- **Garbi** (Zegama), xaboi naturalak eta kaikuak.
- **Gauzaki** (Gasteiz), zeramika.
- **Bego Rojo** (Zeanuri, Bizkaia), zeramika.
- **Emi Nogales** (Elgoibar), margoak.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eta 'rally'-ak zer?

Eta *rally*-ak, zer? Hainbeste urte, hainbeste berri: futbol taldeak, eskubaloikoak, jaiak, kexak, onurak, kultura ekimenak,... Hala ere, oraindik ikutzeke dagoen gai bat geratzen zaio herriko aldizkariari: *rally*-ak. Lotsagarria da *rally*-en inguruan inoiz berririk ez agertzea, ez soilik bat baino gehiago gungandik gertu edota gure herriaren inguruan bertan direlako, baita herrian behin baino gehiagotan parte hartu izan duten hainbat gidari ditugulako (Jesus de la Fuente eta Aitor Arrieta dira, parte hartu izan ohi duten beste batzuren artean, aurtengoz irten direnak). Hori guztia gutxi balitz, *rally*-ak zaletasun handiz jarraitzen dituzten gazte asko daude herrian bertan, eta horiek gure iritzi berekoak direla esango genuke. Hori dela eta, honakoa da BARREnako gure eskakizuna: *rally*, gidari eta (baleude) kopilotuen inguruko informazioa agertzea.

**Asier Ajuriaguerra Martinez
eta Norma Ageitos Urain**

'Elgoibar bi erroberatan'

Pasa den astean ospatu genuen *Elgoibar bi erroberatan* bizikleta-festa, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu festa arrakastatsu egin zenuten guztioi: Elgoibarko Udalarari eta Udaltzaingoari, Elgoibar Txirrindulari Elkarteari, Elgoibarko Gurutze Gorriari, Glass Controlri, Nava inprimategiari, Beristain logistika banaketari; eskerrak parte hartu zenu-

ten guztiei, eta antolakuntza-lanetan jardun zuten boluntarioei ere. Txotxeri ere esker bereziak eman nahi dizkiogu, logoa egiten erakutsi duen adeitasunagatik.

**Herri Eskolako Kalamua
gurasoen elkarte**

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 📠 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Alberto
Agirreazaldegui

Herriko kale eta parke dezente hankaz gora daude

azken aldian. Kaleak, espaloiak, jarlekuak, lorategiak... Itxura al daketa nabarmena egingo du laister herriak. Ez nago aldaketen kontra, zentzuz eta adostasunez egiten badira. Ez dut ezagutzen proiektua eta ezin dut esan nola geldituko den, baina ez dut gaitzetsiko ezagutu baino lehen.

Hala ere, obren inguruan sortutako arazo larri bat azaldu nahi dut: segurtasuna. Badakit halako lanak egiten direnean deserosotasunak jasan behar izaten ditugula eta pazientziaz hartu behar ditugula trabak. Baina gauza bat da erosotasuna eta beste bat segurtasuna. Aspalditik ikusten ari naiz errepedeetan eta kaleetan hainbat eta hainbat obra segurtasun eskasiarekin.

“Elgoibar ez da izaten ari segurtasunaren eredu”

Oinezkook pazientzia eskaini behar dugu, baina gure burua arriskuan jarri gabe. Gure inguruko obra gehienetan segurtasunari ez zaio garrantzi nahikorik ematen eta ez zaie bermerik ematen hortik dabilzan pertsoneri. Eta gogorrena da erakunde publikoak direla arduradunak. Agintariak pazientzia eskatzen digute, baina segurtasuna bermatu gabe. Obrak egiten diharduten enpresek errazegi ahazten dute segurtasuna biztanleen kalterako. Gero sortzen dira istripuak eta kalteak, eta orduan alferrik da neurriak hartzea. Eta hau ez diot esateagatik, neronek jasan dudalako baizik. Elgoibar ez da izaten ari segurtasunaren eredu. Zuk nabari al duzu halakorik, Abel?



Abel
Irizar

Kalean zindoazela, zuloa jausi eta kolpe latza hartu zenuen saihetsetan, Alberto. Eta handiagorik gertatu ez zenean, pozik! Zaila da gaur egun Elgoibarren hori gertatu dela onartzea bera ere. Sinistu ezinda geratu nintzen. Kolpearen mina pasatuko zitzaizun, baina sentimendua barruan geratuko da. Istriputxo bat izan dela esango dute batzuek, baina istripurik ez da gertatzen neurriak ondo jarrita dauden lekuan. Metro bateko zuloa bistan lagatzea utzikeria galanta da. Eta, bai, kaleko obren azken arduradunak agintariak dira, eta beraietarako dagokie neurriak eskatzea enpresei.

Aditu batek esan zidan laneko istripu bat gertatzen denean, normalean kontrolatu behar ziren lau-bost faktorek batera huts egiten dutela. Hortik atera kontuak zelako axolagabe jokatzeko duten enpresek. Eta kasu larriagoa da kaltetuak herritarrak izan daitezkeenean.

“Istripurik ez da gertatzen neurriak ondo jarri badira”

Agintariak legeak egin egiten dituzte, baina gero ez dituzte maila berean betetzen. Herritarrok ezin ditugu aldatu etxeko leihoak baimenik gabe, baina agintariak edozein obra hasten dute korrika eta presaka, segurtasun planik edo ingurumen baimenik gabe. Eta horrek jokoan jartzen du beraien sinesgarritasuna.

Elgoibar asko aldatu da azkenaldian, kaleko obrak tarteko. Inguuru batzuk txukunago geratu dira oinezkoentzat. Ezindu fisiko eta edadeko jendeari begira traba asko kendu dira, eta umeekin ere seguruago ibili daiteke kalean. Ez dakit obra guztiak batera egin beharra zegoen, baina, badakizu, azkar eta ondo, usoak hegan.



Elgoibarko Udala



Udalak 244.459 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra kultur elkarteari 2009. urterako

laz baino 32.000 euro gutxiago jasoko ditu aurten elkarteak, krisia dela-eta,

Elgoibarko Udalak 244.459 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra kultur elkarteari 2009an gauzatu eta garatu nahi dituen proiektu eta egitasmoak finantzatzeko. Krisia dela-eta iaz baino 32.000 euro gutxiago jasoko ditu aurten kultur elkarteak.

Elgoibarko Izarrak 632.000 euroko aurrekontua dauka 2009rako, eta Udalak emandako diru-laguntza aurrekontu osoaren %38 da, gutxi gorabehera. Diru-laguntza hori aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da: Euskara Batzordetik (155.556 euro) eta Gazteria Batzordetik (88.903 euro).

Gazteria Batzordeak Atxutxiamaiaka taldearen proiektuak finantzatuko ditu, eta Euskara Batzordeak, berriz, gainontzeko egitasmoak. Proiektu eta programa batzuk osorik finantzatzen ditu Udalak (*Gurean Bai*-hitzarmena, *Kuadrillategi* programa eta Euskara Erreformatzuak), eta beste batzuetan, aurrekontuaren zati bat da Udalak finantzatzen duena (Haur eta gazteen aisialdia %67, kultur jarduerak %21, BARREN eta *elgoibarren.net* %20)



Udalari eskerrak

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Elgoibarko Udalari, eskaintzen duen laguntzarengatik. "Iaz baino diru dezente gutxiago jasoko badugu ere, Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko. Aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu nahi dugu. Iaz baino diru dezente gutxiago jasoko badugu ere, gure ustez, euskara gure herrian sustatzeko ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana", adierazi dute kultur elkarteko arduradunek.

Hauek dira hitzarmenean azaltzen diren proiekturik garrantzitsuenak, jasotzen duten dirulaguntzaren arabera:

- BARREN astekaria: 56.610 euro
- *elgoiBARREN.net*: 6.300 euro
- Atxutxiamaiaka: 55.000 euro
- Kuadrillategi: 34.100 euro
- Haur eta gazteak (gastu orokorrak): 34.000 euro
- Gurean Bai-Merkataritza Hitzarmena: 30.500 euro
- Kiribilka: 12.000 euro
- Euskara erreformatzuak: 11.000 euro

Amaitu dituzte Madalako lanak eta gainontzeko obrak bide onean doaz



Madalako parketik Herriko Antzoki ingurura arteko lanak amaitu dituzte. Gaur, ekainak 5, irekiko dute parkea, eta ingurune berri hori inauguratzeko hainbat ekintza izango dira: Kiribil bertan izango da bere lagunekin 17:30etik aurrera. Ondoren, Mauxitxa txarangaren kalejira izango da, erraldoi eta buruhandiek, eta gauean Expresion Sonora taldeak kontzertua eskainiko du. Proiektuak 971.419 euroko aurrekontua izan du.

Bestalde, Santa Ana eta San Inazio kaleko lanak ere bide onetik doaz, eta Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak esandakoaren arabera, azken detaileak baino ez dira falta. Datorren astean ingurune hori ere amaituta egongo da.

Pertsonaia **Unai Arrieta**



Logroño Natur House eskubaloi taldeak Unai Arrieta fitxatu du. Urtebeterako kontratua sinatu du elgoibartarrak Errioxako taldearekin. Azken bi urteak Eibarko Arrate taldean eman ditu jokalariai gazteak, baina azken urtea oso gogorra izan dela aitortu du, alor guztietan. Taldea ekonomikoki itota dagoela azaldu du Arrietak, eta jokalariai hilabete asko kobratu gabe egon direla esan du. Horrez gain, kirol alorrean ere, denboraldia nahiko pattala izan dela adierazi du. Fitxaketa berriarekin oso pozik dagoela azaldu du jokalariai.

Berbia **Eguzki energia**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, eguzki energia aprobetxatzeko panelak jarriko dituzte hainbat herritan, tartean, Elgoibarren. Hilabete honetan hasiko dira lanean, eta bereziki, eraikin publikoetan ipiniko dituzte panelok. Ricardo Garate, hirigintzako arduradunak esandakoaren arabera, Elgoibarko hainbat eraikin aztertzen ari dira, baina oraindik ez dute erabaki eguzki panelak non jarriko dituzten. Helburua airean dagoen CO2 kantitatea gutxitzea da. Eguzki energiari esker, etxeko hainbat tresna elektriko martxan jartzeko aukera izango da, ingurumena kutsatu gabe.

Irudia **50 urtekoen kinto bazkaria**

1959an jaio eta aurten 50 urte egin dituzten elgoibartarrek kinto ospakizuna egin zuten joan zen zapatuan. 130 lagun inguru elkartu ziren, eta asko kanpotik etorri ziren. Taldeko argazkia atera ondoren, bazkaria egin zuten. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ekitaldian parte hartu zuten guztiei, baita ere, Jai Alai tabernako Jose Mariri eta Zubi Ondo elkarteko zuzendaritzari ere.



Armuetako Anjel Mari Arrizabalaga telebistan

Azken asteotan telebista ikusi dutenek Elgoibarko aurpegi eza-gun bat ikusteko aukera izan dute. Armuetako harategiko Anjel Mari Arrizabalaga Eusko Label haragi markako iragarki batean azaldu da. Martxoan grabatu zuten iragarkia Lizundia basri inguruan, eta Alheticek kopako finala jokatu zuen egunean estreinatu zuten. Hasieran urduri zegoela aitortu du Anjel Marik, baina esperientzia polita irudituzi.



Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak

Datorren domekan Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira. Elgoibartarrek ohiko lekuetan eman dezakete botua: Kultur Etxean, Jubilatuen egoitzan, IMHn, Urasandiko eskolaurrean, Pedro Muguruzan eta Altzolan. Botua goizeko 9:00etatik 20:00ak arte eman daiteke.

Udal Euskaltegietako lan poltsa zabalik

Debabek, Deba Barreneko Udal Euskaltegien mankomunitateak, irakasle beharrak asetzeko lan poltsa ireki du. Interesatuak www.elgoibar.org web gunean lortu dezakete informazioa, edo Udal Euskaltegian (943 742 731).

Nagusientzako oporrak

Immersoren oporraldi programan izena emateko epea ekainaren 20an amaituko da. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean edo jubilatuen biltokian jaso ditzakete eskaera orriak.

Domekan Europako Legebiltzarrerako hauteskondeak izango dira.

Interesik sortzen dizu Europako Parlamenturako bozketak?



Consuelo Mediavilla
69 urte, etxeoandrea

Ez. Kanpainari ez diot kasurik egin, telebista katea aldatu egiten dut hauteskunde kontuak azaltzen diren bakoitzean. Ez gaude ondo informatuta, eta nire inguruan inork ez daki zertarako diren hauteskunde horiek. Hala ere, kalera irteten baina, akaso, emango dut botua.



Almudena Gallastegi
30 urte, zuzendaritza idazkaria

Egia esan, hauteskunde kanpainari ez diot kasu handiegirik egin. Gutxi jarraitu dut, baina datoren domekan badaukat bozkatze-ko asmoa. Ez dakit zein den arrazoia, baina jendeari ez zaizkio Europako hauteskundeak gehiegi interesatzen.



Manuel Perez
58 urte, langilea

Bai, interesatzen zaizkit Europako hauteskundeak, baina domeka honetan kanpoan egongo naiz eta ezin izango dut bozkatu. Bestela, beti eman dut botua, eta orain ere emango nuke. Kanpaina jarraitu dut, botua emateko garrantzitsua da informatuta egotea.



M. Cristina Giansanti
54 urte, langabetua

Bai, eta botua ematera joango naiz, gainera. Jendea dezepzionatuta dago daukagun egoerarekin, eta gutxik bozkatuko dutela iruditzen zait. Ni Argentinakoa naiz, eta han derrigortuta geunden bozkatzera. Hemen nahi dudalako joango naiz bozkatzera.

moda

gehigarria



Gaur egun, askorentzat garrantzitsua da modan dauden erropak zeintzuk diren jakitea: zer dago modan? Galtza motzak ala piratak, sandaliak ala txankletak, alkandorak ala kamisetak, beturreko handiak ala txikiak...? Zein kolore erabiliko da gehien? Estantpatua ala lisoa? Galtza hau kamiseta honekin jarri dezaket?

Gehigarri honen bidez, modan egon nahi duen jendeak udaberri-uda honetan erabiliko diren arropen berri izango du.

Lizzy jantzidenda

EMAKUMEEN MODA

*Errosario kalca, 25
Tel.: 943 742 302
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)*



EMAKUMEA



Udaberri-udan ezinbestean erosi beharreko hamar gauza

Heldu da armairuan 2009ko udaberri-udako Harropak sartzen hasteko ordua. Gaur egungo krisia dela eta, normala da diru gutxiarekin ibiltzea, baina funtsezko hamar erosketa eginez gero, gure arropategia berritzu eta modan egoitea lortuko dugu. Hauek ezinbestekoak dituzu:

1. Loredun soineko entailatua. Loreak zenbat eta handiagoak eta koloretsuagoak, hobeto.
2. Plataforma-sandaliak, takoi eta guzti. Pitoi estanpatua badute, hobeto.
3. Besoko etnikoak, eskuturrak apaintzeko. Zabalak aukeratu, eta eraman bat baino gehiago batera.
4. Gastatutako bakeroak, azidoarekin edo lejia-rekin garbituak.
5. Jaka motz-motza. liluratuta laga gintuen arropa horrek 2009ko udaberri-udako Chanelen desfilean. Smoking bertsioak paregabeak dira lore soinekoarekin janzteko.
6. Buzorik gabe ezinezkoa izango zaizu uda pasatzea.
7. Alkandora bakeroa. Cowboy estiloa itzuli da. Oihal bakeroa era guztietako arropatan izango da. Atera armairutik alkandora zahar hori, minigonarekin edo koloretako pitillo-prakekin janzteko.
8. Neoi tonuko arropa batek kolorea emango dio armairuari. Look erabat fosforitoarekin ez bazara ausartzen, gerrikoarekin saiatu, edo zapatilekin, edo polo batekin. Konbinatzeko, erabili arropa zuriekin, beltzekin edo nudeekin batera, gehiegizko kolorea neutralizatzeko.
9. Beix edo makilaje koloreko soinekoa: sandalia arrosekin zoragarri geldituko da.
10. Harem galtzak: modan jarraitzen dute. Bate-tik oihal leunak erabiliko dira: satenak esaterako, pijama efektua sortuko du. Bestetik oihal lakarrak ere izango dira: txandal oihalaren bidez, kirol-looka lortuko da.

gustatuko zaizu!
Rosario kalea, 34
Tel.: 943 531 205

Carhartt **VOLCOM** **Bench.** **havaianas** **zergatik** **FL53** **USA**



Ixte - likidazioa
Erropak %50 eta %30ean



Oinetako erosoak
eta
ezkontzako
oinetakoak



Zatoz eta probatu
konpromisorik
gabe!



Sara

Rosario, 14 -Tel.: 943 743 555 - Elgoibar
Kale Nagusia, 34 -Tel.: 943 130 098 - Zarautz
Ereka, 22 -Tel.: 946 584 628 - Elorrio



35 €

20 €

modagehigarria

GIZONA



Gizonezko modaren joera nagusiak

Udaberri-uda denboraldirako diseinatzaile handiek gizonentzako jantzien arloan egin-dako proposamenei errapatutako diegu lehenik.

Dolce & Gabbanaren arabera, jantzietan marrek jarraituko dute. Diseinatzaile horrek eta bere Resort lineak gizon klasikoa nabarmentzen dute, sport tankerakoa eta dotorea. Horretarako, kargu galtzak eta *v* formako eskotedun jertseak eta belaurerainoko bermudak proposatu ditu. Pastel-tonuak nagusitzen ditu bere kolektziorik klasikoenean, argi urdina esaterako. Kalkia eta zuria ere nagusi dira.

Emporio Armanik ere kolore horiek aukeratu ditu. Galtza nasaiak nahiago ditu. Roberto Carvallik antzeko proposamena egin du. Missonik, berriz, honako koloreak aukeratu ditu: batetik mostaza, eta bestetik lur-koloreak –laranjak eta gorrixkak–.

Bestalde, Burberryk marra zabaleko kamisetak aukeratu ditu, kolore hauekin: itsas-urdina eta zuria. Alkandorak, beso luzeak zein beso motzekoak, koadro txikiz osatutakoak dira.

LOREAK ETA LARRUA

Denboraldiak erakutsiko du loreak gizonenak ere badirela. Diseinatzaileak aspertu egin dira horrenbeste koadro eta marrarekin, eta loreen aldeko apustua egin dute. Alkandoretan, kamisetetan, jaketan eta galtzetan lore estanpatuak izango dira.

Traje eta alkandorek marra bertikalak eta zeharkakoak izango dituzte aurtengo udaberri-udan.

Horrez gain, larrua eta material horrekin egindako detaileak ezinbestekoa dituzu, jakak eta poltsak esaterako.



Belaustegi Baserria



JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02 · www.belaustegi.com



Dastatzeko menua

Ekainaren 10tik 15era



Edaria eta kafea 37,50 € (+bez)

10. urteurrena



Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.

Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.

ASIER RODRIGUEZ 11 URTE

Gutxi falta da oporretarako. Zer egingo duzu aurten?
Mintxetako igerilekuetara joango naiz, Debako hondartzara eta gero Galziara. Familia daukagu han, eta urtero joaten gara.

Azterketa garaia da. Nolako notak atera dituzu?

Dena gainditu dut, pozik nago.

Azterketetan egiten duzu txuletarik?

Nik ez, baina batzuk egiten dituzte.

Zein da gehien gustatzen zaizun ikasgaia? eta gutxien?

Plastika gehien, eta gutxien, matematika.

Irakurri duzun azken liburua?

Las fieras futbol club. Futbolari buruzkoa da, hala ere, nahiago dut saskibaloia. Tau taldea asko gustatzen zait.

Zure ingurukoek badaukate irakurtzeko ohiturarik?

Batzuk gehiago, baina gutxi irakurtzen dute. Irakasleek esaten digute gehiago irakurtzeko.

Aladinoren lanparari zein hiru desio eskatuko zenizkioke?

Diru gehiago edukitzea, eta txiroentzako janaria. Hirugarrena ez dakit!

Dutxan abesteko ohiturarik baduzu?

Ez. Ez dut asko abesten.

Zerk ematen dizu beldurra?

Armiarmek eta liztorrek. Intsektuak ez zaizkit batere gustatzen.

Zenbat gezur esan dizkizaduz elkarriketa honetan?

Bat ere ez. Ez dut gezurrik esaten. Batzuetan lagunei gezur txikiren bat kontatzen diet, baina brome-tan.



Txapelketa

Alebinak eskubaloian

Sanlo Eskubaloi Eskolako 53 ikaslek Alebinen Eskubaloi Txapelketan hartu zuten parte joan den aste-buruan, Iruñean. Katalunia, Kantabria eta Nafarroako jokalariekin jokatze-ko aukera izan zuten. Giro ezin hobean pasatu zuten asteburua, eta Klubeko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Lara Urain, Egoitz Ansola, Aritz Telleria, Gorka Bereziartua eta Josu Atxa begiraleei.



HEGAN EGITEKO GAI BAZINA, NORA JOANGO ZINATEKE?

Aner Telleria 7 urte

Torreviejara, eta gero Frantziara. Autoz mareatu egiten naiz, eta hegan azkarago joango nintzateke.



Unai Fernandez 7 urte

Galziara, oporretan, familiakoak ikustera. Hegan egitea asko gustatuko litzaidake



Gorka Alvarez 6 urte

Zerura, izarrak ikustera. Hauts magikoak hartu, eta hegan ibiliko nintzateke izar batetik bestera.



Naroa Gonzalez 6 urte

Galziara eta Benidormerra. Lagunak ditut han, eta eurak ikusiko nituzke zerutik.



Alba Rey 6 urte

Eibarrera, eta gero Andaluziara. Autoan bidaia oso luzea da, eta hegan berehala iritsiko nintzateke.



Maria Galdos 6 urte

Etxeko leihotik irten eta eskolara joango nintzateke, lagun batekin eskutik helduta.



Kirol Patronatuak antolatuta, tenis jaialdia izan zen zapatuan Olaizaga kiroldegian. Tomas del Olmo tenislari elgoibartarraren laguntzaz, hainbat tenis-jolas praktikatzeko aukera izan zuten umeez.



Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barnean, pleno txikia izan zen udaletxean, hilaren 28an. Elgoibarko ikasleek aldaketa klimatikoa gelditzeko eta energia aurrezteko proposamenak egin zizkieten udal agintariari.

MIKEL OLAIZOLA

Bertsolaria

Mikel Olaizola Elgoibartarrak afizio asko ditu, baina horietako bat bertsolaritza da. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan aritu da bigarren, eta finalera iritsi da. Aurten 18 urte beteko dituen, parte hartu duen azken aldia izan da. Hemendik aurrera ere bertsotan jarraitzeko asmoa dauka, “baina tarteka”. Bere esanetan, “ez naiz ikusten saioz-saio”.



“Irabaztea guztioi gustatzen zaigu, bestela ez genuke parte hartuko”

Bi aldiz iritsi zara Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera, eta ez duzu irabaztea lortu. Zer gertatzen da?

Orain dela bi urte iritsi nintzen lehenengo bider, eta aurten bigarren. Uste dut ni baino hobek direla, eta ez dago besterik.

Zelako esperientzia izan da txapelketan parte hartzea?

Aurten parte hartuko dudana azken urtea izan da, lehiaketa 18 urte bitartekoentzako delako, eta polita izan da. Gainera ez nuen pentsatzen finalera iritsiko nintzenik, gustura aritu naiz.

Zelako maila dago zuen artean?

Gipuzkoan nabarmentzen diren batzuk daude, baina nahiko parekatua dago maila. Beste probintzietan gehiago igartzen da diferentzia. Lehendabizi probintziak aritzen gara, eta probintzia bakoitzeko bi onenak Euskal Herriko probara pasatzen dira.

Zu ez zara egon bi horien artean. Egindako saioarekin gustura geratu zara?

Hasieran makal samar hasi nintzen, baina gustura bukatu nuen. Jen-dea ere gustura geratu zela uste dut.

Txapelketako bertsolarien artean, zelako giroa daukazu?

Irabaztea guztioi gustatzen zaigu, bestela ez genuke parte hartuko. Baina niretzat ez da kirola bezalakoa: besteek irabazten dutenean, adibidez, poztu egiten naiz. Gero, txapelketatik kanpo ere hartu emana edukitzen dut; batzuekin gehiago besteekin baino, gertutasuna dela eta.

Nondik datorkizu bertsotan aritzeko zaletasuna?

Etxean betidanik entzun izan ditugu bertsoak, eta ikastolan ere txikitik landu ditugu. Gero bertso-eskola sortu zuten, Errazu, eta han ere ibiltzen naiz. Hamar bat gaztetxo ibiltzen dira bertso-ekolan, eta gu, nagusiak, irakasle aritzen gara.

Elgoibarren bertsotarako afiziorik badago?

Ez, Elgoibar ez da oso bertsozalea. Baina ez nuke nahi futbolarako moduko afizioa edukitzerik; bakoitzak bere neurrian eduki behar du.

Bertsolari bat aukeratzekotan, zein?

Igor Elortza aukeraturiko nuke: esaten dituen gauzak gustatzen zaizkit. Gauza asko transmititzen dizkit.

Ardoaren eta urdaiazpikoaren usainean

Barixaku iluntzean ardo-dastatzea ere egin zuten

Ardoa eta urdaiazpikoa hileko azken zapatuko ferriako protagonistak izan ziren joan den asteburuan. Trinitate Jaietako Nagusien Danborradak antolatuta, ardo edateko aukera egon zen, eta merkatu plazako Barrerazoka elkarteak antolatuta, urdaiazpikoa jateko aukera ere egon zen.

Zer usain da?

Ardoa edan aurretik, barixaku iluntzean, ardo-dastatzea egin zuten Kultur Etxeko Sotoan. Roberto Sarriugarte adi-tuak ardo-dastatzeak zelan egin behar diren azaldu zien lehendabizi han bildutakoei. Usaimena zentzumen garratiztsua da dastatzea egiterakoan, eta parte hartzaileek joko bat egin zuten: pote txiki batzuetan zeuden usainak zer ziren asmatu behar zuten. Horren ostean, ardo-dastatzea egin zuten.



Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako ikuskizunak emango ditu Herriko Antzokian



Ekainaren 11n eta 12an, datorren egue-nean eta barixakuan, Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako emanaldiak egingo ditu Herriko Antzokian. Ikasturtean ikasitako koreografiak herritarren aurrean erakusteko aukera edukiko dute dantzariak. Emanaldiak 20:00etan hasiko dira, eta ordubete inguru iraungo dute. Taula gainean 130 ikasle ariko dira, gorputza astintzen: 4 eta 14 urte artekoak dira ikasleak. Elgoibartarrez gain, Eibar, Mendara eta Debakoak ere badaude taldean. Bestalde, hilaren 19an, barixakuan, 22:00etan, *Zinema-musikala* ikuskizuna ere egingo dute Biraka dantza taldeko 30 dantzariak. “Zinemari omenaldia da, eta polizia-film bateko grabazio bat antzetzten du koreografiak. Abesti guztiak pelikuletako soinu bandak dira”, azaldu du Biraka dantza taldeko Josu Mujikak.

Musika eskolan matrikulatzeko aukera

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolan astelehenean zabalduko dute matrikulazio epea. Goizez astelehen eta martitzenetan 11:00etatik 13:00etara joan ahal izango da, eta arratsaldez astelehene-tik barixakura 18:00etatik 20:00etara. Epea hilaren 19an amaituko da. 5 urteko haurrekin hasten dira lanean, eta hiru maila dituzte. Hala ere, nagusientzako banakako klaseak ere ematen dituzte.


Hip-hop ikastaroa

Uztailaren 1ean hip-hop ikastaroa hasiko dute Olaizaga kiroldegian. Umeena martitzen eta egue-netan izango da, 11:00etatik 12:00etara, eta nagusia astelehene-tan, 20:00etatik 22:00etara. Izena emateko epea hilaren 22an amaituko da. Umeek 28 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek 32 euro.

Goiz paregabea

‘Elgoibar bi erroberatan’ irteerak 270 lagun elkartu zituen bizikleta gainean

Herri eskolako Kalamua gurasoen elkarteak antolatuta, giro paregabean egin zuten *Elgoibar bi erroberetan* bizikleta irteera joan den domeka goizean. Ekimena oso arrakastatsua izan zen, eguzkia lehen ordutik lagun izan zutelako, eta jende mordoak parte hartu zuelako ekimenean, 270 lagunek guztira. Ume zein guraso, adin guztietako txirrindulariak ikus zitezkeen. Era eta tamaina guztietako bizikletak ere bai, batzuk gurditxo eta guzti. Denak batera, bakoitza bere erritmoan, Ermuaran-Sallobentera jo zuten. Distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzeko antolatzen dute irteera, eta, era berean, bizikletentzat ibilbide egokiak eskatzeko. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko sartu www.elgoiBAREN.net helbidean.



Mailaz igotzea lortu ez arren “pozik” daude Haundikoak

Burgosi 1-0 irabazi zion, baina ez zen nahikoa izan



Denboraldia hasi aurretik hamar jokalariz zituen Haundik, eta helburua mailari eustea zen. Baina igoera faseko kanporaketak jokatuz amaitu dute denboraldia Jagoba Arrasatek entrenatutako mutilek. “Denboraldi oso ona izan da. Urte osoan goian egon gara, eta mailaz igotzea lortu ez arren, pozik gaude”, azaldu du Arrasatek.

Abantaila gaindiezina

Burgosi 1-0 irabazi zion Haundik Mintxetan, 1.300 zaleren aurrean. Elgoibartarrek esku hartu zituzten gaztelarrak, baina Burgosek joaneko partidaren lortu zuen bi goleko abantaila gaindiezina izan zen. Haundikoek merezitako oporrak hartuko dituzte orain. Jagoba Arrasate berriatarraren gidaritzapean, primerako denboraldia egin du taldeak. Haundin jokatu zuen Arrasatek, eta makina bat gol sartu zituen gainera. Entrenatzaileakoso emaitza onak lortu ditu lehen urtean.

Gipuzkoako Kopako finala ere irabazi du IMHK



Elgoibarko IMH taldeak primerako denboraldia egin du aurten. Euskadiko kade-te mailako txapelketan dira, eta joan den asteburuan Gipuzkoako Kopako finala ere irabazi zuten Zarautzen kontra jokatutako partidaren. 24-28 emaitzarekin gaituzten lehia elgoibartarrek. Espainiako Txapelketan ere aritu ziren, eta irabaztea lortu ez bazuten ere, oso ondo moldatu ziren.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa. 1. finalurrekoa.

Lagunak 12 – Arrasate 22 (Jub.)

Debarroko Txapelketa. 2. finalurrekoa.

Lagunak 22 – Bergara 3 (Nag.)

Debako 4 1/2koa

Arribillaga 22 – Mujika 14 (Jub.)

Irungo Txapelketa

Arribillaga-Ugalde 22 – Egiguren-Galarra 8 (Jub.)

ESKUBALOIA

Ikus Elgo. 21 – IMH Elgo. 41 (Kad.nesk.)

Zarautz 24 – IMH Elgo. 28 (Kad.nesk.)

Aterpe Elgo. 9 – Errotabari 28 (Inf.nesk.)

Txariduna Elgo. 16 – Pulpo 31 (Inf.mut.)

AGENDA

FUTBOL 7 (Kiroldogegian)

Zapatua, 6

10:00 Vodka Juniors - Bar Areto

11:00 Pauperrimo - Jaika 5 Estrellas

IDARRAGA SARIA

HAUNDIKO JOKALARI ERREGULARRENA

1. Pinilla 90

2. Minondo 87

3. Odei 81

4. Larrea 79

5. Muxi 72

Asteburu honetan hasiko dute bailarako Futbol 7 txapelketa

Guztira 17 taldek eman dute izena bailarako Futbol 7 txapelketan parte hartzeko. Elgoibarren hamar taldek eman dute izena, eta Eibarren zazpi taldek. Gehienak Elgoibarko taldeak dira, baina badaude Ondarroako, Debako, Eibarko, Ermuko eta Soroluzeko taldeak ere. Lehenengo jardunaldia asteburuan jokatuko da, eta finalak uztailearen 17an, barixakuan, jokatuko dituzte Mintxetan.

LANA

ESKAERA

- Ingeles klaseak ematen dira ekainean eta uztailean, goizez. ☎679 113 446
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsaldez edo gauez. Geriatria kurtsoarekin. ☎646 235 195 / 943 531 903
- Klase partikularrak ematen dira uztailean goizez. LH eta DBH. ☎688 664 727
- Emakumea, nagusiak zaintzen interna, externa, orduka edo gauez lan egiteko eskaintzen da ☎699 813 826
- 17 urteko neska euskaldun arduratsua udan goizez edo arratsaldez lan egiteko prest, umeak zaintzen, eskolarako errefortzua barne edo etxeko lanetan aritzeko. ☎608 686 814 / 943 741 674
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalnetarako prest. ☎664 055 503
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalnetarako prest. ☎617 005 381
- Neska gazte bat, zerbitzari lanak, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎697 824 727
- DBH eta LHko Matematika eta Gaztelaniako klase partikularrak ematen dira uztailean, goizez. ☎943 744 206
- Klase partikularrak ematen dira ekaina eta uztailean. Hikuntzak eta LH-DBHko ikasgaiak. ☎658 045 119
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest, arratsaldeko 15:00etik aurrera. ☎943 743 251

- Neska gaztea lanerako prest, bai nagusiak zaintzen, bai orduka garbiketa lanetan ere. ☎638 916 028
- Neska gaztea lanerako prest, bai ontziak garbitzen, bai haurrak edo nagusiak zaintzen. ☎675 940 901
- Uztailean klase partikularrak ematen ditut, LH eta DBHko ikasgai guztiak. ☎618 244 804
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎686 420 642
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest eta garbiketa lanak egiteko. ☎628 014 327

ESKAITZA

- Sukalde laguntzaile eta kamareroa behar da aste-bururako. ☎ 943 121 262
- Sukaldari laguntzaile behar da. ☎ 943 743 196
- Margolari eta administrari bana behar da, espezializariekin. ☎ 648 210 852

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Apartamentua alokatzen da Benidormen. Erdigunean. Prezio onean. ☎ 943 740 628

LOKALAK

- Mugerza kalean garaje itxia alokagai. ☎ 943 743 339

MOTORRA

- Lau laguntzako karabana salgai. Egoera onean. 2.500 euro. ☎ 679 408 078
- Bost ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metalizatua, aire girotua, oso ondo zaindua, beti garajea, 22.000 km baka-rik! 7.000 euro. 675 007 661 (Dorleta). ☎ 652 716 709

BESTELAKOAK

- Etxeko altzariak, elektro tresnak eta etxeko erro-pak behar dira. ☎ 676 444 171
- Esther izena jartzen duen urrezko pultsera bat galdu da. Aurkitzen baduzue, deitu: ☎ 636 418 985
- Setter ingeles arrazako txakurkumeak saltzen dira, apirilaren 17an jaiotakoak. Guraso ehiztariak. ☎ 625 708 042
- Bikotearentzako logela saltzen da, ohea, armairua eta koltxoiarekin. 2 urte ditu. ☎ 656 788 122



lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Lanbide Elgoibar
Gabriel Krutzelaegi, 8
20870 Elgoibar
Tel.: 943 744 425
Faxa: 943 740 618
e-mail: elgoibar@lanbide.net
www.lanbide.net



*Lan bidea
El camino
hacia el empleo*

ELUSKO JAURLARITZA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

EUROPIANO ELKARTEA
UNION EUROPEA

Europako Funtzio Sozialak
Funds Social Empleo



Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eskueran jartzen dizun Euskal Enplegu Zerbitzua da eta lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen dizu.

Beren lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lan-merkatura itzuli nahi dutenei eta lanean arituta ere, enpleguz aldatu nahi dutenei zuzentzen gara eta baita langileak behar dituzten enpresei ere.



• Zorionak, **Susanel** Astelehenean 2 urtetxo egingo dituzulako. Gurasoen partez muxu asko.



• Zorionak, **Leire**, domekan 7 urte beteko dituzulako. Pa familiaren, bereziki Ireneren partez.




• Zorionak, **Asier**, martitzenean 5 urte bete zenituelako. Muxu bat gurasoen, bereziki Araceliren partez.



• Zorionak, **Andres**, joan den egunean 2 urte bete zenituelako. 2 muxu potolo familiaren partez.



• Zorionak, **Nagore**, maiatzaren 26an 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Hartz**, 5 urte bete zenituelako joan den domekan. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Esther**, atzo 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat aittitta-amama eta familiaren partez.



• Zorionak, **Marimatraka**, gaur 5 urte betetzen dituzulako. Ondo pasa eta muxuak familiaren partez.



• Zorionak **Maddi**, gaur 2 urtetxo egiten dituzulako. Unax, Ane eta familiako partez.



• Zorionak, **Asier**, eta 6 muxu potolo familia eta bereziki arreba Oihaneren partez.



• Zorionak **Sara** zure 4. urtebetetzean etxeko partez.



• Zorionak, **Iker**, zure lehenbiziko urtebetetzean. Aitabko, amatxo eta lbairen partez.



• Zorionak, **Aitana eta Gorka**, asko maite zaituzten familiaren partez.



• Zorionak **bikote!** Ezkontza egun ona izan ta disfrutau ezkontza bidaiari! Familia eta lagun partez.



• **Amets eta Beñat**, azkenean 7 urte. Zorionak bikote, familia guztiaren partez.

Maiatzean agurrak kobratzen hasi gara. **Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRENEko** bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Mendaroko Udalak Trinitade jai alaiak opa dizkizue mendaroar guztioi!!!



OKINDEGIAK

7 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 5 Ibañez
- 6 Garitaonaindia-Bidasolo
- 7 Garitaonaindia-Bidasolo
- 8 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 9 Fernandez
- 10 Yudego
- 11 Zabaleta
- 12 Etxeberria (*Errosario*)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBAREN.net



6 zapatua

Emaileen Eguna

10:30 Informazio mahaiak

Emaileen Nazioarteko Eguna dela eta, informazio mahaiak jarriko dituzte Plaza Handian.

10 eguaztena

Ikus-entzunexkoa

19:00 Hego Amerika

tandemean

Eneko Etxebarrietak eta Miyukik Hego Amerikara tandemean eginiko bidaia azalduko dute. Antolatzaileak: Kutxa eta Udal Euskaltegia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

11 eguena

Dantza

20:00 'Biraka'

Triska dantza taldeko ikasleek kurtso amaierako dantza ikuskizuna eskainiko dute. Herriko Antzokian.

12 barixakua

Dantza

20:00 'Biraka'

Triska dantza taldeko ikasleek kurtso amaierako dantza ikuskizuna eskainiko dute. Herriko Antzokian.

Erakusketa

19:00 Egur arte tailerra

Egur arte tallerreko kideek ikasturtean eginiko lanen erakusketa inauguratuko dute. Hilaren 26ra arte egongo da ikusgai. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

TRINITATE JAIK 09

5 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Madalako parkean.

Jarraian, **Mauxitxa txaranga**

Erraldoi eta buruhandiekin, Madalako parkean.

23:00 **Expresion Sonora taldearen kontzertua**

Madalako parkean.

6 ZAPATUA

10:00 **Trinitateetako azoka berezia**

Plaza Txikian eta Nafarroa Plazan Elgoibarko baserrietako animalia eta produktuen erakusketa.

10:30 **Trikitilari eta txistularien kalejira**

Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilari eta txistularien kalejira.

12:30 **Ici dema**

Soarteren idiak Harri beltza mugituko dute. Nafarroa Plazan.

18:00 **Dantza jaialdia**

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia. Udal txistulari taldeak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte. Plaza Handian (euria bada, kiroldegian).

00:00 **Nagusien Danborrada**

Udal Musika Bandak lagunduta, Plaza Handian hasiko da.

12:00 **Umeen danborrada**

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako antolatuta.

17:30 **Erraldoi eta buruhandiak**

Kalejira egingo dute, herriko dultzainerokin batera.

19:00 **Dantzaldia**

Eguren taldearekin, Plaza Handian.

13 ZAPATUA

17:00 **Xake lehiaketa**

Taldeakako xake lehiaketa, Lerun jatetxean.

20:30 **Kontzertua**

Carmina Burana, San Bartolome parrokian.

20 ZAPATUA

11:00 **Xake lehiaketa**

Umeentzako xake lehiaketa, Giza Eskubideen parkean.

«La sombra del poder»

5, barixakua: 22:15

6, zapatua: 19:00/22:15

7, domeka: 19:00

8, astelehena: 21:30

Estatu Batuetan, 2007. Zuzendaria:

Kevin Macdonald. Aktoreak: Russell Crowe, Ben Affleck, Jason Bateman. 127 minutu.

Stephen Collins parlamentaria bere

alderdiko izarra da, eta hurrengo hauteskundeetan presidentetzarako hautagaia izango dela uste dute. Haren laguntzailea hiltzen dutenean gauzak korapilatu egingo dira.



TRINITATE JAIK MADALAKO JAI BATZORDEAK ANTOLATUTA

6 ZAPATUA

12:00 Elgoibarko sagardo dastaketa

Elgoibarko baserrietan egindako sagardoa dastatzeko aukera izango da, eta, nahi duenak, mokadutxo ere egiteko aukera izango du.

18:30 Kalejira-poteoa

Herriko kaleetan zehar.

Iluntzean 'Festetan ere burua erabili' jaia

Munlet, DJ Doc Koyamantado, DJ Txako eta DJ Zigor DZ musikarien emanaldia izango da, eta txitxarro errea afaltzeko aukera eskainiko dute. Gaztetxean. Sarrera doan izango da, baina Gaztetxera sartzeko derrigorrezkoa da buruan zerbait eramatea: txapela, ileordea, lorea...



Tel.: 943 741 011



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO
IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren
teorikoa 16 urte bete aurretik
eta autoaren azterketa teorikoa
18 urte bete aurretik!**

Zatoz informazio eske!

Zerikasi

IKASTAROAK

Ekonomia eta rocka

Norentzat: Unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat.

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera data: 2009-07-01

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 821 426

Pintura eta teknika piktorikoak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera

Hasiera data: 2009-07-06

Non: Deban

Izenemate bukaera: Ekainak 30

Forja lanen hastapenak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera

Hasiera data: 2009-07-13

Non: Deban

Izenemate bukaera: Ekainak 30

Erregulazio eta kontrol sistemak

Norentzat: 21 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-09-21

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 208 444

Diseinu grafikorako teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-10-01

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 120 156 (Iñigo)

Marmolezko eskultura

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera

Hasiera data: 2009-07-27

Non: Deban

Izenemate bukaera: Uztailak 26

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 748 271

Gure berbak

Hiztegixa (7)

Pasa dan astian hasittakuari segittuko diogu aste honetan, euskara gipuzera hurreratzen gaittuen ezaugarri lexikuak jasotziari.

Gaurkuan, aldaera batzuk ekarriko dittut hona. Batzuetan, aldaera giputza bakarrik erabiltzen da; beste batzuetan, mendebaldekuarekin batera erabiltzen da aldaera giputza (indar haundixagurekin edo txixixagurekin).

Hona, batzuk:

- ♦ *iltzia* (eta ez "ultzia")
- ♦ *iriña* (eta ez "uruna")
- ♦ *beltza* (eta ez "baltza")
- ♦ *berdiñ* (eta ez "bardiñ")
- ♦ *ezpaiña* (eta ez "ezpana")
- ♦ *zaiña* (eta ez "zana")
- ♦ *premixa* (eta ez "premiña")
- ♦ *eman* (eta ez "emon")
- ♦ *berriz* (eta ez "barriz")
- ♦ *ederki/edarki*
(eta ez "ederto"/"edarto")
- ♦ *poliki* ("politto" baiño gehiago)
- ♦ *gaizki* (eta ez "txarto")
- ♦ *etzan* (eta ez "etzun"/"etziñ")
- ♦ *iritzi* (eta ez "eritxi")
- ♦ *sorua* ("solua" baiño gehiago)
- ♦ *aparixa* ("afarixa"-rekin batera)
- ♦ *praillia* ("frailia"-rekin batera)
- ♦ *perixia* ("ferixia"-rekin batera)
- ♦ *berri* (eta ez "barri")

Urkaregiko gaiña hartu eta Bizkai aldera guazela, elgoibartarrak Markiña-Etxeberri esan izan diogun herrixarekin topo egitten dogu; esan bezela, guretzat EtxebErri da, eta ez hangiak esaten deben bezela, Etxebarri.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1966

Aste honetako erretratu zaharra Ize liburudendakoen argazki bildumatik atera dugu. 1966. urteko argazkia da. **Jesusa Mugerza (†)** elgoibartarra azaltzen da, eta bera izan zen herriko azkenengo serora. Carlos parrokoarekin egin zuen lan azken urteetan, eta bere lana meza ordurako eliza prestatzea izaten zen: garbitu, jarlekuak bere lekuan ipini eta diruaren poltsaz arduratu. Horren ondoren, ez zen serora gehiago egon, eta figura hori desagertu egin da.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENeN argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhua)

7. EDIZIOA

IMH SARIAK



Ikasle ohi aipagarria
Ikasle aipagarria
Fabrikazio Arloko ikaslea
2008-2009 ikasturtea



■ Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

■ Proposa ezazu ikasle ohi aipagarria:

- Telefonoz: 943 748 265 (Amaia Ansola)
 - www.imh.es webean, bete formularioa
- Proposamen aurkezteko epea: ekainak 10

■ Sarien jakin arazpen eta banaketa ekitaldia:

- 2009ko ekainaren 19an
- Informazio gehiago: www.imh.es

Babesleak:



MAPFRE
seguros



Kolaboratzaileak:

AGME, S.A. - AUTOMATION ORIA, S.L. - BIAL MEKANIZAZIOAK S.L. - CRISTALUX S.L. - ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. - GAINDU, S.A. - GORATU MAQUINAS-HERRAMIENTA, S.A. - IBARMIA, S.A. - IMS CONSULTORES, S.L. - INDUSTRIAS ALGA, S.A. - INDUSTRIAS METALA, S.L. - ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES - INTZA, S.A. - JUARISTI, S.L. - LAIP, S.A. - MAZA - MECANIZADOS GURRUTXAGA, S.L. - OCE, S.A. - PIERBURG, S.A. - PIXEL SISTEMAS, S.L. - T.M.NORMA, S.A.



Makina Erremintaren Institutua

IMH, Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 744 132 - imh@imh.es - www.imh.es

bozkatu



iniziaiba INTERNAZIONALISTA